



**dantzaz**

**JARDUEREN**

URTEKO MEMORIA

Pelotari kalea, z/g (Dantzagunea)  
20100 Errenteria (Gipuzkoa)  
943021136  
**www.dantzaz.eus**  
dantzaz@dantzaz.eus

**2021.**  
URTEA

## **GURE MISIOA**

# *Dantza sektorea garatzea*

Sorkuntza eta ekoizpen koreografikorako formatu ertain-handiko (8-15 dantzari) prozesu irekiak bultzatzea eta kudeatzea, komunitatearekin bitartekaritza landuz. Erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan, eta mugaz gaindiko bokazioarekin, dantza garaikidearen sektorean gorabidean diren Gipuzkoako eta Euskadiko profesional gazteentzat enplegua sortzea. Tokiko eta nazioarteko eragileak lankidetzan sare irekietan uztartuz, sektore osoari etorkizunerako bide aitzindariak eskaintzea.

## **AURKIBIDEA**

|                                               |    |
|-----------------------------------------------|----|
| <b>1.</b> Enplegua eta "mentoring"-a.....     | 4  |
| <b>2.</b> Ekoizpena eta sorkuntza.....        | 14 |
| <b>3.</b> Nazioartekotzea eta saretzea.....   | 26 |
| <b>4.</b> Bitartekaritza eta komunitatea..... | 32 |
| <b>5.</b> Birak.....                          | 40 |
| <b>6.</b> Dokumentazioa.....                  | 46 |
| <b>7.</b> Kudeaketa ekonomikoa.....           | 58 |
| <b>8.</b> Taldea.....                         | 61 |



## 1.go ATALA

# *Enplegua eta "mentoring"-a*

2002an sortu zenetik, Dantzaz dantzaren sektorean enplegua sustatzeko zentroa eta dantzari, profesional eta koreografo gazteentzako proiektio- eta abiarazte-plataforma izan da. European dantzak eta arteek bizi duten egoerak ez ditu bizitasun zantzurik onenak ematen eta, agian, horregatik bihurtu da Dantzaz, gaur egun, mundu osotik etorritako interpreteen eta sortzaileen aukerak emateko eta sorkuntza-prozesuak laguntzeko bokazioan sakontzen duen rara avis bat.

### **Dantzazek hainbat modalitatearen bidez eskaintzen dizkie aukerak dantzari:**

(1) **beka-kontratuen** bidez, (2) **artista-erregimeneko lan-kontratuen** bidez eta sektoreko hitzarmenak arautzen dituen baldintzen arabera, eta (3) **MUGIZ** izeneko formula baten bidez. Formula horrek konpainiako Euroeskualdeko interpreteei plazak eskaintzen dizkie etorkizuneko "harrobi" gazte bat osatzeko helburuarekin. Eskaintzen diren aukerak interpretazioaren arloan ez ezik, sorkuntzan, bitartekaritzan eta ekoizpean ere oinarritzen dira. Une honetan dantzan profesional izateko eskatzen den profilak askotariko jakintzak eta trebetasunak behar ditu, eta, bereziki, bitartekaritzan eta komunitatearekiko harremanean.

## 1.1. DANTZARIENTZAKO BEKAK

Dantzaren sektorean enplegua eta profesionalizazioa sustatzen ditu Dantzazek, eta, aldi berean, sor-kuntza eta ikerketa sustatzen ditu, mundu osoko interpreteei aukerak emanez, eguneroko lanerako bekak eta artista-erregimeneko kontratuak konbinatuz.

Oharra: 2021eko datuek bi denboraldi hartzen dituzte kontuan, 2020/21ekoa eta 2021/22koa.

|                    |           |
|--------------------|-----------|
| Araitz Lasa        | Bizkaia   |
| Aitor Jimenez      | Gipuzkoa  |
| Xian Martinez      | Galizia   |
| Beñat Urrutia      | Bizkaia   |
| Alicia Cayrou      | Iparralde |
| Marina Eskisabel   | Gipuzkoa  |
| Julen Rodríguez    | Gipuzkoa  |
| Iker Sanz          | Gipuzkoa  |
| Elene Carreto      | Bizkaia   |
| Maddi Gaztelumendi | Gipuzkoa  |
| Laura G. Latasa    | Bizkaia   |
| Noel Quintela      | Galizia   |
| Oscar Pascual      | Nafarroa  |
| Lara Matea Ivancic | Eslovenia |
| Iñigo Rementeria   | Bizkaia   |
| Andrea Aguado      | Madril    |
| Raúl Abentín       | Madril    |

**16**  
DANTZARIAK

**11**  
BERTAKO  
DANTZARIAK  
(Euroeskualdea)

**358**  
Artista erregimeneko  
KONTRATUAK

**24**  
BEKAK

## 1.1. DANTZARIENTZAKO BEKAK

| Izen-abizenak      | 2021eko 1. sei hilabetekoa | 2021eko 2. sei hilabetekoa | Dantzaz Beka | Mugiz Beka | Bitartekaritza Beka | Euroeskualdean ikasia | Euroeskualdean jaioa |
|--------------------|----------------------------|----------------------------|--------------|------------|---------------------|-----------------------|----------------------|
| Araitz Lasa        | x                          |                            | x            | x          |                     | x                     | x                    |
| Aitor Jimenez      | x                          |                            | x            | x          |                     | x                     | x                    |
| Xian Martinez      | x                          |                            | x            |            |                     |                       |                      |
| Beñat Urrutia      | x                          | x                          | x            |            |                     | x                     | x                    |
| Alicia Cayrou      | x                          |                            | x            | x          |                     | x                     | x                    |
| Marina Eskisabel   | x                          | x                          | x            | x          | x                   | x                     | x                    |
| Julen Rodríguez    | x                          |                            | x            | x          |                     | x                     | x                    |
| Iker Sanz          | x                          |                            | x            | x          | x                   | x                     | x                    |
| Elene Carreto      | x                          |                            | x            |            | x                   | x                     | x                    |
| Maddi Gaztelumendi | x                          | x                          | x            | x          | x                   | x                     | x                    |
| Laura Gómez        | x                          | x                          | x            | x          | x                   | x                     | x                    |
| Noel Quintela      |                            | x                          | x            |            |                     |                       |                      |
| Oscar Pascual      |                            | x                          | x            |            |                     | x                     | x                    |
| Lara Matea Ivancic |                            | x                          | x            |            |                     |                       |                      |
| Iñigo Rementeria   |                            | x                          |              | x          |                     | x                     | x                    |
| Andrea Aguado      | x                          | x                          | x            |            |                     |                       |                      |
| Raúl Abentín       |                            | x                          | x            |            |                     |                       |                      |

14

*DANTZAZ  
BEKAK*

7 gizon eta  
7 emakume

Sartzeko gehienezko  
adina: 25 urte

**Bertakoak edo  
nazioartekoak**

Gehienezko iraupena:  
**2 urte**

4

*MUGIZ  
BEKAK*

Gizon 1 eta  
3 emakume

Sartzeko gutxienezko  
adina: 16 urte

Bertakoak  
(**Euroeskualdea**)

Gehienezko iraupena:  
**urte 1**

5

*BITARTEKARITZA  
BEKAK*

gizon 1 eta  
4 emakume

Dantzariak  
edo artistak

Bertakoak  
(**Euroeskualdea**)

Gehienezko iraupena:  
**2 urte**

1

*ATALAK  
BEKAK*

emakume 1

ATALAKekin lotutako  
sortze-prozesuaren  
arabera, kontratuak  
3 asteko iraupena izan  
ohi du

## 1.2. BOOMIEZ

### *Dantzazeko dantzari ohientzako aukerak*

Formula honen bidez, Dantzaz-en beka jaso duten dantzari gazteei beren ibilbide profesionalei jarraipena emateko aukera eskaintzen zaie, bira-proiektuetan edo ekintza berezietan parte hartuz, artista-erregimeneko kontratuen bidez.

2021ean, **Dantzazek kontratatutako 14 dantzarik** Campraren **Idomenée óperaren** ekoizpenean parte hartu zuten, Alex Ollé/La Fura dels Bausen zuzendaritza artistikoarekin, Emmanuelle Haïmen musika zuzendaritzarekin eta Martin Harriagueren koreografiarekin, **Lilleko Operak eta Berlingo Staatsoper Unter den Lindenek koproduzituta**. Obra honen lehen urratsak Dantzaguneko eta Lekuonako Erretereriako instalazioetan sortu ziren.

|                     |                     |
|---------------------|---------------------|
| Pauline Bonnat      | Diego Urdangarin    |
| Rafke Van Houplines | Valerio di Giovanni |
| Marina Scotto       | Xian Martinez       |
| Saioa Belarra       | Aitor Jimenez       |
| Araitz Lasa         | Tiziano Piloni      |
| Alicia Cayrou       | Axier Iriarte       |
| Paula Urkijo        | Beñat Urrutia       |

## 16

### BOOMIEZ

Berlinen (**Alemania**), Lillen eta Biarritzen (**Frantzia**), Ljubljanan (**Eslovenia**), **Huescan, Valladoliden** eta **Nafarroan** garatutako hainbat proiektutan parte hartu dute. Taulan aipatutako izenei Iker Sanz eta Julen Rodriguez gehitu behar zaizkie

## 5

### ATALAK

Maidier González  
Ane Gabilondo  
Uribarri Atxotegi  
Maialen Alberro  
Jon Vernier





## DANTZARIEN BANAKETA GEOGRAFIKOA

### 2000-2021

Dantzaz osatu duten 141 dantzarien jatorri geografikoa.



### 1.3. ZETA ZETA SAIOAK

*Ekintzailletza-programa bat Lezon, non Dantzaz taldeko dantzariak sorkuntza-augerak ematen dizkiena eta sormen-prozesuak publikoari zabaltzen dizkiona*

Lezoko Udalarekin duela gutxi sinatutako hitzarmenari esker, Dantzaz-ek ekimen berri bat diseinatu du, joan den urriaren 7an hasi zena eta Dantzaz taldeko dantzariak beraiek egindako koreografia-sorkuntzako prozesu batzuen bidez egituratzen dena. Horrela, publikoak ikusi ahal izango du, hainbat saiotan zehar, nola garatzen diren sortze-prozesuak, 2022ko apirilean egingo diren azken aurkezpenetara arte. Saio horietan, beren zerbitzura egongo diren sortzaile eta dantzariak gain ("soloak" eta bikoteak batez ere), beste interprete batzuek "bitartekari" lanak egingo dituzte prozesu betean eszenan gertatzen ari dena publikoari azaltzeko, eszenaren eta besaulki-patioaren arteko etengabeko elkarriketari eutsiz.

75 eta 100 minutu bitarteko iraupena duten saio horiek hilero bi sorkuntzaren bidez antolatzen dira eta 2022ko apirilera arte izango dira (guztira 7 saio osatuz).

7

2021eko urria eta 2022ko  
apirilaren artean egindako

**SAIOAK**

28

Dantzazeko  
dantzariarentzako

**KONTRATUAK**

## 1.4. MENTORING

### *KABIDANZ: arte eszenikoen sektorerako ekintzailetza-programa Oarsoaldean*

Arte eszenikoen sektorearen eta eskualdeko garapen agentziaren artean zubiak erakitzeko, **Dantzazek eta Oarsoaldeak** indarrak batzen dituzte KABIDANZ izeneko espazio bat sortzeko, coworking eta ekintzailetza-prozesuei laguntzeko, Dantzaz-eko dantzari eta dantzari ohiengandik nahiz Dantzagunearen erabiltzaile diren beste pertsona interesatu batzuegandik sor daitezkeenak. Ekintzaileek eta/edo proiektuek Dantzaz-en laguntza izan nahi dutenean, laguntza, prestakuntza eta orientazio zerbitzuak eskainiko zaizkie Oarsoaldearekin koordinatuta. KABIDANZ Dantzaguneko Dantzaz-en bulegoan dago.

KABIDANZen bizi den lehen erakundea **Kultza** da, Iker Sanz eta Elene Carreto buru dituen erakundea. Dantzaz taldeko dantzari ohiak Dantzaz eta Oarsoaldean lagun izan zituzten beren negozio-eredua asmatu eta sortzeko prozesuan.



## 1.5. BESTE EKINTZAK

### *DANTZA ETA ENPLEGUA*

Dantzaz-eko arduradunak **Lanbideko** zuzendari nagusiarekin ere bildu ziren (María Jose Telleriaren bitartekaritzari esker, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kulturako zuzendaria), **enplegua sustatzeko planen** eta arte eskenikoen sektorearen arteko lotura-formulak jorratzeko... Gaur egun, kultura- eta sormen-enpresek ezin dute baliatu arte-lanbideetan enplegua sustatzeko laguntzen esparru hori, dantzako titulazioak ez baitaude aitortuta.

Aldi berean, **Mikel del Valle** dantzari eta koreografo bilbotarrak **Konplutenseko Kultur Kudeaketako Masterreko** praktikak egin zituen Dantzazen, 2021eko apirilaren 19tik uztailaren 2ra bitartean. Halaber, **Dantzertiko** hiru ikasle (Amaia Cabrero-Saizar, Iratxe Bilbao eta Iñigo Rementeria) Itxaso Canoren sorkuntza laborategian aritu ziren praktikak egiten martxoan eta apirilean, ATALAK sarearen barruan. Jon Vernier **Angerseko (Frantzia) Kontserbatorioko** ikasleak ere bere praktikak egin zituen otsaila eta apirila bitartean Dantzazen.

### **LANBIDERI ADIERAZITAKO BEHARRAK**

Sektorean ziurtagiri  
profesionalak  
sortzeko beharra

Enplegua sustatzeko  
programak zuzeneko  
arteen sektorera  
egokitzea

## 1.5. BESTE EKINTZAK

### *DANTZAGUNEAKO ZERBITZUAREN KUDEAKETA*

Dantzagunean bizi izateaz gain, 2014tik Dantzaz elkarteak Dantzagunearen zerbitzua kudeatzen jarraitzen du **Ondare 2.0** izeneko ABEEan, **Dantzan.com** eta **Eragin Stac-ekin batera**. Sofia Alforja arduratzen da zerbitzuaren eguneroko kudeaketaz, Dantzan.com-eko Gari Otamendirekin eta Eragin Stac-eko Itziar Botekin batera, Fernando Saenz de Ugartek (Dantzaz), Dantzan.com-eko Oier Araolazak eta Josu Garatek eta Eragin Stac-eko Amal Ariztimuñok osatutako taldeak zuzenduta. Sektorean hain integratuta dauden hiru erakunderen indar, ikuspegi eta esperientzien batasunari esker, zerbitzua egituratu eta sendotu egin da, eta pandemiaren eta pandemia ostearren erronka berriei aurre egiten jakin du, erakundeekin eta sektorearekin etengabeko elkarriketan. 2021 hone-tan, Dantzagunearen zerbitzua kudeatzeko lehiaketa berri baten lizitazioa egin da, eta Ondare 2.0 aldi baterako enpresa-elkarteak irabazi du berriro.





## 2. ATALA

# *Ekoizpena eta sorkuntza*

Dantzaz-en ekoizpenak konpainiak aldian-aldian nazioarteko eta tokiko koreografoei helarazten dizkien gonbidapenetatik sortzen dira, egoitzan, konpainiako dantzariekin batera sortzeko. Askotan, koreografo horiek ez dute inolako konpainiarentzako lan espezifikorik egiten, eta beren proposamenak, nolabait, egungo joera, estetika edo lengoaien lagin heterogeneoa dira. 2021ean, Adriana Pousen kuradoretzapean, konpainiaren errepertorioa handitu egin da, Carmen Larrazek, Hilde Kochek eta Gil Harushek sinatutako 3 ekoizpen berrirekin. Osagarri gisa, **ATALAK**ek talentu koreografikoa sustatzen jarraitu du esperimentazio-laboregien eta produkzio-egoitzen bidez, lan-ildo berri bat sustatzen baitute.





## 2.1. ATALAK

### *Sorkuntza garaikideko mugaz gaindiko sarea*

Dantzaz da egoitza koreografikoen, ikerketaren, dokumentazioaren eta bitartekaritzaren programa honen buru, eta Akitania Euskadi Nafarroa Berriko Euroeskualdeko hiru sortzaileri aukera ematen die Dantzaz taldeko dantzariekin eta sektoreko beste profesional batzuekin hiru astez lan egiteko. Ondoren, Malandain Ballet Biarritzek, Baluarte Fundazioak, Tabakalerak, Dantzaguneak eta Gasteizko Antzoki Sareak lagatzen dituzten espazioetan erakusten da bere lanaren emaitza. Horrez gain, kolaboratzaileen plataforma gero eta zabalagoa da, eta Dantzerti, Azala eta Gasteizko eta Biarritz/Baionako kontserbatorioak biltzen ditu, besteak beste. <https://atalak.eus>



## ATALAK

*Mugaz gaindiko  
sareko bazkideak*



Baluarte Fundazioa izaera publikoko fundazioa da, eta Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kirol Departamentuari lotuta dago. Iruñeko Baluarte Auditorioan eta Biltzar Jauregian du egoitza.



2014tik, Biarritzeko Gare du Midiko Grand Studioak Atalak taldearen aurkezpenak hartzen ditu eta mugaz gaindiko jarduera koreografiko baten garapenean lanean hasten da.



Tabakalera kultura garaikideko zentroa da, Donostian kokatua, eta bokazio bikoitza du: produkzio-zentroa izatea eta jardueren programazio publikoa eskaintzea.



Gipuzkoako Dantzagunea Gipuzkoako Foru Aldundiaren dantza zerbitzua da. 2009an sortu zen, Gipuzkoan dantzaren sorkuntza eta pres-takuntza sustatzeko helburuarekin.



Sare hau Antzoki Zaharrak, Félix Petite Antzokiak (CC Ibaiondo), Jesús Ibáñez de Matauko Antzokiak (CC Hegoalde), Beñat Etxepare Antzokiak (CC Iparralde) eta Federico García Lorca Antzokiak (CC Lakua) osatzen dute.





## ITXASO CANO

### *Laborategia*

*2021eko martxoaren 15etik 26ra arte*

Martxoan, Itxaso A. Cano koreografo nafarrak, ZUK Dance konpainia zuzentzen duenak, harrera egin zion Gipuzkoako Dantzagunean, Euroeskualdeko dantzari talde batekin esperimentazio laborategia garatzeko. Itxaso A. Canok, 30eko hamarkadan sortu zen, eta honako termino musikal hau hartu zuen abiapuntutzat. «Laborategi honetan, entzulea mugimenduan jartzen duten patroir erritmikoetatik sortzen den lehen mugimendu horretara garamatzanaren sotiltasunean sakondu nahi dut, ondoren bertatik sortzen den hizkuntza behatu eta material horrekin zer bide hartu erabakitzeko».

#### ERAKUSTALDIEN PROGRAMA

|          |                       |
|----------|-----------------------|
| 21/03/25 | Gasteiz (CC Ibaiondo) |
| 21/03/26 | Bilbo (Dantzerti)     |
| 21/03/29 | Errenteria (Niessen)  |
| 21/04/10 | Donostia (Tabakalera) |




## EVA GUERRERO

### *Laborategia* *2021eko ekainaren 7tik 18ra arte*

Ekainean, Atalak Sareko esperimentazio laborategiak Eva Guerrero Doos kolektiboko zuzendaria hartu zuen, Nafarroako Foru Komunitatearen konplizitateari esker DNA Nafarroako Dantza Jaialdiak egoitzan hartu zuena. Gorputz baten eta bestearen artean dagoen espazioari buruzko bilaketaren garaipena, ikerketa-prozesuan hasitakoa -Zati baten erdian- (2020), abiapuntua izan zen Eva Guerrerorentzat.

#### ERAKUSTALDIEN PROGRAMA

|          |                                  |
|----------|----------------------------------|
| 21/17/06 | Lizarra, Kultur Etxean           |
| 21/21/06 | Felix Petite Antzokia (Gasteiz)  |
| 21/22/06 | CCN Malandain Ballet Biarritz    |
| 21/28/06 | Niessen Kulturgunea (Errenteria) |



## AMAIA ELIZARAN

### *Laborategia*

*2021eko abenduaren 1etik 10era arte*

Amaia Elizaran, espazio ez-konbentzionaletan eta inprobisazioan oinarritutako proposamenak egiten dituen sortzailea, aukeratu zuten abenduan Gipuzkoako Dantzagunean programatutako egoitza artistikorako. Bere laborategian, dantzak musikarekin duen harremana izan zen egoera fisiko eta mentaletatik abiatzen diren mugimenduen bilaketa bultzatu zuena, arnasketa dantzaren eta musikaren arteko eta dantzari-talde zabalaren beraren arteko lotune bihurtuz.

### ERAKUSTALDIEN PROGRAMA

|          |                           |
|----------|---------------------------|
| 21/12/02 | Donostia (Tabakalera)     |
| 21/12/13 | Erretereria (Niessen)     |
| 21/12/14 | Tafalla (C.C. Tafalla)    |
| 21/12/15 | Gasteiz (C.C. Ibaiondo)   |
| 21/12/16 | Hernani (Biteri K. Etxea) |

**3**

### *LABORATEGI KOREOGRAFIKOAK*

3 esperimentazio koreografikoko  
laborategi Itsaso Cano (Nafarroa),  
Eva Guerrero (Euskadi) eta Amaia  
Elizaranekin (Euskadi)

**5**

### *DOKUMENTAZIOKO EGITASMOAK*

Guztira, 3 barne-topaketa,  
tailer bat eta sinposio bat  
programatu ziren

**34**

### *BITARTEKARITZAKO EGITASMOAK*

34 ekintza egin dira: 20 lagin,  
estreinaldi 1, 6 bitartekaritza-saio  
helduekin eta 7 bitartekaritza-saio  
eskola-ikasleekin

**2**

### *EKOIZPENAK*

Hilde Koch eta  
Carmen Larraz-ek egindakoak

**19**

### *TOPAKETAK*

Publikoarekiko topaketarako 19  
saio programatu ziren

**112**

### *KONTRATUAK*

112 kontratu egin ziren,  
mota ezberdinetakoak



## 2.2. EKOIZPENAK

Dantzaz errepertorioa handitu egin da aurten, antzoki eta auditoriumetan eta espazio ez-konbentzionaletan erakusteko sortutako **hiru ekoizpen berriekin**. Guztiek DNA bera dute komunean, oso publiko ezberdinek estimatzeko sortuak izan ziren eta dantza garaikidean eta hizkuntza koreografiko berrietan espezializatutako jaialdietan programatu daitezke, baina baita publikoak dantza garaikidean hasi nahi dituzten udalerrri txikietan ere. Horrez gain, eta Golem zinemekin lankidetzan, Dantzaz-ek erakusketa formatu berezi bat jarri zuen martxan, ikus-entzunezko dokumental baten eta dantzako pieza baten proiektzioa konbinatuz.



## NIKOLA

### *Carmen Larraz*

Proiektu honetan, Carmen Larraz, Dantzaz taldearekin eta Dinamo Danzako kide den Martín Los Arcosekin batera, Nikola Tesla, argiaren aztia izeneko zientzialari artistaren irudian barneratzen da. Zientzialari bikaina izateaz gain, Nikola Tesla irudi karismatiko eta altruista izan zen, eta irudi poetiko bezain bikainak utzi zizkigun.

Nikolak elektromagnetismoaren irudi eta ideia horiek hartzen ditu, giza harremanen irakurketa desberdinak egin daitezkeen konposizio koreografikoetara eramanda. Horretarako, Dantzaz taldeko dantzariekin elkarlanean aritzea oso garrantzitsua da, haien esperientziek eta ibilbide artistikoak prozesua laguntzen baitute ekarpen pertsonalago batekin.

#### ERAKUSTALDIEN PROGRAMA

21/02/04

Errenteria (Niessen)

21/05/08

Iruñea (Baluarte)



## GESALA/SAL

*Gil Harush*

2021eko uztailaren 3an estreinatu zen Cristóbal Balenciaga Museoa (Getaria), eta Gil Harush koreografo israeldarraren zигilua darama. 2014an, Les Synodales de Sens Nazioarteko Lehiaketako Sari Nagusia irabazi zuen, eta Frantziako kritikariak 2018ko Sorkuntza Onenaren Sarirako izendatu zuen, 'The Heart of My Heart' piezagatik. Obrak 15 minutuko bikote bat eta 30 minutuko zazpi dantzarentzako pieza bat biltzen ditu, biak inspirazio berean oinarrituak eta bakoitza bere aldetik antzeztuak. Itsasoak, suak, tradizioek eta itsasoko genero-harremanek inspiratzen dute Txikota eta Dantzaz-en koprodukzio hau (bere bigarren lankidetzaz aztertzen dute 'Basotik Itsasora' dokumentalaren eta 'Basoa' sorkuntzaren ondoren). Berarekin, Gil Getariako jendearen historian murgiltzen da, bai eta arrantzarekin eta gastronomiarekin duten harreman estuan ere, horien jakintzak belaunaldiz belaunaldi transmititu baitira.

### ERAKUSTALDIEN PROGRAMA

21/05/28

Donostia (Gazteszena)

12/07/03

Getaria  
(Cristobal Balenciaga)





## QUORUM

*Hilde Koch*

Quorum, Hilde Kochek ATALAK programarako egin duen sorkuntza berriaren izenburua, Paula Olaz konpositorearen, Tytti Thusberg moda jasangarriko diseinatzailearen eta Alaine Arzoz argiztapen diseinatzailearen kolaborazioez elikatzen den koreografia da. Lau emakume horien baterako lana gizakiaren, naturaren eta haien interakzioen inguruko hausnarketa bat den pieza baten abiapuntua da. Ikerketa koreografikoko ariketa baten bidez, Kochek « sosegua eta soiltasuna aurkitzeko » lekua bilatzen du. William Forsytheren eta Nacho Duatoren kolaboratzailea, koreografoak Dantzaz-eko interpreteen eta bere talde artistikoaren ekarpenak batzen ditu publikoa bildu eta edertasun une batera eramango duten ekintzak marrazteko, lau elementu naturaletan oinarritutako konposizio abstraktuak birsortuz: ura, sua, airea eta lurra.

**ERAKUSTALDIEN  
PROGRAMA**

21/11/11

Erreteria (Lekuona)



## BASOTIK ITSASORA + BASOA

### *ERAKUSTALDI BEREZIA*


### *Golem Zinemekin batera*

Golemek eta Dantzazek beren bideak elkartu zituzten dantza eta zine saio oso bereziak eskaintzeko, dokumental baten ikuspena zuzeneko dantza ikuskizun baten erakustaldiarekin konbinatuz.

Ekainaren 5, 6, 19 eta 20an, Golem Baiona zinema-aretoek Basotik Itsasora dokumentala, errefuxiatuetan eta giza migrazioetan oinarritua, ikusteko aukera eskaini zieten ikusleei, eta hamar dantzarik interpretatutako BASOA piezaren proiektioaz eta zinemako hallean (modu horretan, formatu berri bat proposatuz) gozatu ahal izan zuten.

#### ERAKUSTALDIEN PROGRAMA

|          |                |
|----------|----------------|
| 21/06/05 | Iruñea (Golem) |
| 21/06/06 | Iruñea (Golem) |
| 21/06/19 | Iruñea (Golem) |
| 21/06/20 | Iruñea (Golem) |



### 3. ATALA

## *Nazioartekotzea eta saretzea*

Dantzazek nazioarteko lankidetzarako bide berriak irekitzeko duen konpromisoa etengabe hedatzen ari den sare batean oinarritzen da, idazketa eta sorkuntza koreografikoaren talentudun gazteentzat hazkuntza eta profesionalizazioko espazioen garapenari begira. Osagarri gisa, Dantzaz sektoreko foro eta espazio garrantzitsuetan dago.

- **Elkarrekiko nazioarteko egoitzak.** Tokiko artistek (Euskadi Nafarroa Akitania Berria Euroeskualdekoak) nazioarteko sortzaileekin lan egiteko guneak trukatzeko dituzte.

- **Akordioak koreografia lehiaketekin.** Halaber, Dantzaz-ek talentu berriak sortzen laguntzen du herri mailan, nazio mailan eta nazioartean, koreografia lehiaketekin sinatutako hainbat akordioen bidez.



### 3.1. NAZIOARTEKOTZEA

#### *Hitzarmenak eta egonaldien programak*

Nazioarteko lankidetzarako bide berriak irekitzeko Dantzazen konpromisoa etengabe hedatzen ari den sare batean oinarritzen da, hazkunderako eta profesionalizaziorako espazioen garapenari begira. Bokazio hori **Quebeceko Conseil des Arts et Lettres (CALQ) eta Plesni Teater Ljubljana**rekin (**Eslovenia**) sinatutako elkarrekiko egoitza-programetan adierazten da. Halaber, Dantzaz-ek hainbat lankidetzak akordio dituzte koreografia-lehiaketa ospetsuekin, hala nola **International Competition for Choreography Hannover**rekin (**Alemanian**), **Internationales Solo-Tanz Theater Festival Stuttgart**ekin (**Alemanian**) eta **Madrilgo Koreografia Lehiaketarekin** (**Espanian**). Duela gutxi, Biarritzeko Temps d 'Aimer la Danse jaialdiko **"Tremplin Corps Et Graphique"** lehiaketarekin kolaborazio bat sinatu du.

## ELKARREKIKO EGONALDIAK

*Sortzaileentzako  
aldebiko  
truke-programak*

### CONSEIL DES ARTS ET DES LETTRES DU QUEBEC

Pandemiak atzeratu egin zituen Quebec-eko Conseil des Arts et des lettres du Quebec (CALQ) eta Dantzaz. Ondorioz, Bettina Szabok Dantzagunean eta Tabakaleran egingo du bere egoitza 2022ko urtarrilean eta otsailean, eta Xian Martínez sortzailea Kanadara joango da udazken-negu honetan eszena-sorkuntzako bere proiektura.



Conseil  
des arts  
et des lettres  
du Québec

### PLESNI TEATER LJUBLJANA

Dantzaz taldeak Plesni Theater Ljubljana bisitatu zuen eta 2024ra arte luzatu zen hitzarmena. 2021/22 denboraldian, Plesni Teater Ljubljanak aukeratutako dantzari bat Dantzazen integratu da, eta 2022an, bi erakundeen artean dantzari eta koreografo gazteekin lan egiteko moduari buruzko know-how-aren trukea programatu da. Amaitzeko, 2023an alde biko koprodukzioa jarriko da martxan.



PLESNI TEATER LJUBLJANA  
DANCE THEATRE LJUBLJANA

## DANSE QUI DANSE

### *Europako sarea*

Sare honek zazpi bazkide europar batzen ditu, elkarlanean dihardutenak talentu koreografikoari laguntzeko, proiektu artistiko berriak diseinatzeko eta dantza-eszenaren esparrua hobetzeko. Hauek dira: Scenario Pubblico/Compagnia Zappalà Danza (Italia); Korzo (Herbehereak); Malandain Ballet Biarritz (Frantzia); Danish Dance Theatre (Danimarka); Ginisiano Dance Center (Portugal); Silesiako Antzoki Nazionalea (Txekiar Errepublika) eta Dantzaz.

SCENARIO PUBBLICO  
(Italia)

KORZO  
(Herbehereak)

MALANDAIN BALLET BIARRITZ  
(Frantzia)

DANISH DANCE THEATER  
(Danimarka)

GINISIANO DANCE CENTER  
(Portugal)

SILESIKO ANTZOKI NAZIONALEA  
(Txekia)

## 3.2. NETWORKING

*Azoka eta topaketa  
profesionaletan  
parte hartzea*



Valladolideko TAC  
Festibalaren aurkezpena.

### **dFeria 2021 Donostia-San Sebastián**

XXVII. Arte Eszenikoak I Artes Escénicas  
2021eko martxoaren 15etik 18ra arte

### **Sismògraf. Festival de dansa a Olot**

On-line  
2021eko apirilaren 8an eta 9an

### **TAC. Festival Internacional de Teatro y Artes de Calle de Valladolid**

2021eko uztailaren 7tik 9ra arte

### **Temps d'aimer la danse /Pyrenart**

2021eko irailaren 10etik 12ra arte

### **"Tremplin Corps Et Graphique 2021 Lehiaketa"**

Biarritz. 2021eko irailaren 18an eta 19an

### **Fira Mediterranea de Manresa**

2021eko urriaren 14tik 17ra arte

### **Gaztela-Mantxako Antzerki Feria**

2021eko azaroaren 4tik 6ra arte

### **MERCARTES**

Arte Eszenikotarako Merkatua (Valladolid)  
2021eko azaroaren 30tik abenduaren 2ra arte



## 3.2. NETWORKING

### *Presentzia jardunaldi eta ekitaldi sektorialetan*

